

sagardoa **sukaldariei omenaldia**

Sagardo dastatze herrikoia



GONBIDATUAK ● Karlos Argiñano eta Martin Berasategi dira aurtan Hernanira gonbidatuetako bi. JOSE USOZ / EL DIARIO VASCO - IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

EKIMENA

«Herriari sagardoa zabaltzea» da ekimenaren xedea, antolatzaileen arabera

BERRIKUNTZA

Fagollaga jatetxeak pintxo berezia sortzeko ideia izan du, eta hori da aurtengo berrikuntza

Txotx denboraldia hasteko, besteak beste sukaldariak omenduko dituzte Hernaniko sagardozaileek, urtarrilaren 23an

● Azken urteotan, txotxaren ohitura, aurreikuspen guztiak gainditzearekin batera, gertaera sozial bilakatu da. Denboraldiak irauten duen hiru hiletan, Euskal Herriko edozein txokotatik jende andana etortzen da, batik bat, Gipuzkoa aldera. Hori dela eta, badira hiru urte Hernaniko sagardozaileek, Gipuzkoako sagardo denboraldia merezi bezala hasteko ekimen kulturalak antolatzen dituztela. Aurtan ere urtarrilaren 23rako zer edo zer egiteko asmoa azaldu dute, eta, horren harira, ekimenaren helburua eta nondik norakoak izan ditugu hizpide sagardozaileekin.

Ekimenaren helbururik behinena «herriari sagardoa zabaltzea da», zehaztu dute antolatzaileek; «guztiaren gainetik herriarra eta irekia izan nahi baitu», gaineratu dute. Asmoa ez da gaur sortutakoa, aspaldidanik gogoeta egin baitzuten horren inguruan. Horiek horrela, Hernaniko Taberna eta Merkataritza (Berriak taldea), Udala, Kaxko Elkartea, Tolare Kofradia, sagardotegi batzuk eta hamaika sagardozaile batu ziren



LIZASOTAR SENDIA ● Iaz, Lizasotarrak izan ziren gonbidatu bereziak. JON URBE / ARGAZKI PRESS

herrian zer edo zer egiteko nahiarekin.

Aurtengoa hirugarren urtea izango da, eta, aurrerapen modura, egingo diren zenbait ekimenen berri jakin dugu.

Goizaldean hasiko dira ekital-

diak, Hernaniko Gudarien Plazan. 11:30ean hasiko da eguna, eta hamabi-hamabietan agerraldia izango da. Bertan, sukaldariei omenaldia egingo diete, bai eta Hernaniko eskultore gazte batek egindako oroigarria eskal-

niko ere. Handik ordu erdira, bi upel handi irekiko dituzte, gura dutenek sagardoa dasta dezaten.

Berrikuntza bitxi bezala, Fagollaga jatetxeak pintxo berezia sortzeko ideia izan du. Arratsal-

de partean, giroa alaitzeko, dantaldia egongo da plazan bertan.

Egun horretarako planak egingen ari bazarete, badakizue non topa dezakezen saltsa.

Lehen aipatu bezala, aurtan sukaldari egingo diete omenaldia. Isak Salaberria Fagollagako sukaldari hernaniarra, Karlos Argiñano eta Martin Berasategi izango dira egun horretako gonbidatuak. Era berean, Beasain herria ere omenduko dute, Karlos Argiñanoren jaioeterrria, alegia.

Urtero-urtero, antzeko zerbait egin izan dute; herri bat omendu, eta herrian bertan nabarmentzen den kultur arloko pertsona bat protagonista bilakatzen dute.

Joan den urtean, bertsolariak izan ziren protagonista, eta Azpeiti herria izan zuten gogoa. Halaxe, Lizasotar sendia (bertsolariak) izan zen gonbidatu berezia.

Urteaz urte ekimena gorpuzten ari dira, eta lan eskerga egiteko dagoela aipatu dute. Nolanahi ere, giro handiko eguna eta bizi-tasunez bete izango dela baieztatzen dute sagardozaileek. Egundak emango dio; beraz, bere alderdirik onena erakusteko eskatu beharko diogu eguzkiari.



Hernaniko Udala

Sagardoa ta bizimodua gazi, gozo eta gezamin mama goxua punttu-punttuan orain geronek irakin lagun, familia, enpresa, eskola egin txox lasai denakin urteberria non gozatua izango dezu Hernanin.

(Jexux M^a Irazu)